

TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN: ARRASATE-BERGARA (Debagoiena) 2016/06/14

Kokalekua: Kulturate (Arrasate)

Iraupena: 3 ordu

Parte hartzaileak

Izena	Udalerrria	Elkarte/Erakunde/... /
Juan Antonio Urdangarin	Arrasate	Arrasateko Udala
Juan Carlos Uroz	Aretxabaleta	Goiener Debagoiena
Patxi Makazaga	Arrasate	Mondragon Goi eskola
Javier Yeregui	Bergara	Bergara
Juan Ignacio Galdos	Bergara	Bergarako Udala
Oier Etxebarria Gutierrez	Aretxabaleta	Copreciko eraldaketa soziala
Juan Karlos Garitano	Arrasate	Arrasateko Udala
Luis Anduaga	Oñati	LKS ingeniería S. Coop
Irati Etxeberria	Oñati	Oñatiko Udala
Rafa Ugarte	Arrasate	Arrasateko Udala
Pello Garai	Arrasate	Arrasateko Udala
Ion Albizu Gonzalez	Aretxabaleta	Aretxabaletako EH Bildu
Ugutx Basaort	Bergara	Iraganeko oinatzak

Izena	Udalerría	Elkarte/Erakunde/... /
Maialen Zabaleta	Arrasate	Zinegotzia (EH Bildu)

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
Jesús M ^a Erquicia Olaciregui	Lurralde Antolakuntza eta Plangintza Zerbitzuko arduraduna

Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Agirre Such	Paisaje Transversal
Leire Zuazo Urkaregi	Inguru
Ainhoa Lopez Eiguren	Inguru

Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Fernando Uriondo Ispizuak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariak eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzeari eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugari nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitartezko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-partze hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerrerako proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jonek.

Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Jonek, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
 - o Paisaia
 - o Ingurune fisikoaren antolamendua
 - o Klima aldaketa
 - o Babestutako Naturguneak
 - o Korredore ekologikoak
 - o Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
 - o Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
 - o Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
 - o Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
 - o Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
 - o Hiriz hazkundera
 - o Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
 - o Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
 - o Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - o Bide-mugikortasuna
 - o Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
 - o Talde mugikortasun multimodala

- Eredu logistikoa
- Ura
- Energia
- Zeharkako alderdiak
 - Genero ikuspegia, osasuna, euskara
 - Lurraldeen arteko harremana
 - Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Leirek:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Landutako ideiak post it-etan idatzi beharko dira (post it bat, ideia bat). Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

1.1. Paisaia

1.1.1. Paisaiaren zaintzan, administrazioak laguntzak eman behar lituzkete (ahal den neurrian) zaintzatik eratorritako kostuentzat.

1.1.2. Dorre elektroniko eta telefonikoen efektu bisuala murriztu

1.2. Babestutako naturguneak

1.2.1. Parte hartze prozesuak izatea gune hauen kudeaketa ereduaren ardatza, babestutako gune horretako herritarren parte hartzea sustatuz eta parte hartzea hasieratik bermatuz, ez alegazioetan.

1.2.2. Kudeaketarako jarraipen "organo" bat sortu, kudeaketari jarraipena egin, sustatu eta azkartzeko.

1.2.3. Gizarte osoak jasotzen ditu onurak babestutako naturguneak ezartzeagatik. Hala ere, lur-jabeei erabilera mugak ezartzen zaizkie. Beharrezko da muga hauek ezagutzea eta neurri batean konpentsatzea.

1.3. Ingurune fisikoaren antolamendua

1.3.1. Azpiegitura proiektuetako neurri zuzentzaileen aplikazio eraginkorra.

1.4. Azpiegitura berde integratua

1.4.1. Lehengo Euskal-Nafar trenaren bidea berreskuratu bere osotasunean bide berde gisa.

1.5. Korredore ekologikoak

1.5.1. Udalatx inguruan babes figura bat bilatu

1.5.2. Korredore ekologikoak zabaltzea egokia da.

2. Landa-ingurunea

2.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa

2.1.1. Tokiko merkataritza sustatu, erraztasunak emanez. Honek, lehen sektoreak sortutako baliabideei irteera ematea ahalbidetzen du, batez ere ekintzaile txikienei.

2.1.2. Lurrak landatzea bultzatu. Neurria: lantzea nahi duenak aukerak izan ditzan (eta nahi ez duenak besteen esku utzi ditzaten). Frantziaren eredua

2.1.3. Nekazaritza eta abeltzaintza ustategien kostua zenbatu eta beraien garapenerako neurriak erraztu.

2.2. Landa-inguruneko antolamendu fisikoa

2.2.1. Ingurune fisikoaren kudeaketan bi ikuspegi daude, askotan kontrajarriak:

- Lehen sektorea sustatzea
- Ingurune fisikoa babestea

Biak noranzkoan berean jartzeko formulak aurkitu behar dira, biak uztartuz, jakinik kasu batzuetan kontrajarriak egongo direla eta bataren edo bestearen aldeko hautua egin beharko dela.

2.2.2. Lurren erabilera bultzatu → lur bankua

2.2.3. Herri-ortuen sustapena. Gaur egun aisialdiarekin lotuta dago, baina hau jendearen pentsamoldean eragiteko erabil daiteke, lehen sektorearen ezagutza zuzena izanda, errespetua garatzen baita.

2.2.4. Beste inon nahi ez diren jarduerak, industria, zerbitzuetakoak edo txabolismo irregularra, askotan landa-lurretan bukatzen dute eta hau saihesteko neurriak ezarri beharko lirateke.

3. Hirigunea.

3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza

- 3.1.1. Trinkotasunari beldurra galdu. Santutxuko eredutik Lakuara pasa gara, ez bata ez bestea, lurra behar bezala antolatu eta trinkotu behar da.
- 3.1.2. Lur gehiago ez okupatu
- 3.1.3. Espazio publikoak bereziki zaindu. Orain arte, antolamendua egiterakoan etxebizitza, ekipamendu eta bideak marraztu dira lehenengo eta soberakinak espazio publikorako utzi dira. Hauek ondo pentsatzea beharrezkoa da, ez daitezela izan ez handiegiak ez txikiegiak, ezta residualak ere.
- 3.1.4. Gune berdeak errekuperatu: errekak, periferiak... herri barne eta kanpoaldea konektatzeko.
- 3.1.5. Etxeen ordezkapenean lagundu, okupazio berrien gainera. Planeamenduaren arabera ordezkapena egitea, berria egitea baino zailagoa da. Hau aldatu behar da, erraztu egin behar da, izan ere, ordezkapen errazak eginda daude eta orain etxeak etxeengatik ordezkatu behar dira. Birgaitu beharrean hobeto da ordezkatzeko, trinkotasun eta irizpide berriak txertatzeko.
- 3.1.6. Birgaikuntza batzuetan, egokiena eraitsi eta gune osoa birgaitzea izango litzateke.

3.2. Metropolialdeak eta transformazio ardatzak

- 3.2.1. Sustapen pribatuaren eskutan bakarrik ez oinarritu. Adibidez Bilbo

3.3. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea

- 3.3.1. Lanak modu etikoagoan garatzen dituzten enpresa eta erakundeak saritu. Kasu gehienetan, aspektu ekonomikoek baldintzatzen dute. Horregatik irizpide etikoak, klausula sozialak txertatu beharko lirateke.

3.4. Mugako herriak

- 3.4.1. "Plan de compatibilizacion" garatu → mankomunitatearen figura indartu, herri bakoitzaren gainera dagoen argazkia ateratzeko eta herriek elkarri bizkarra ez emateko. Horrela denon artean zerbitzu hobeak lor daitezke: etxe tutelatuak

3.5. Orokorra

- 3.5.1. Lurralde eredua: Gipuzkoakoa (biztanleria, zerbitzuak...lurraldean banatuagoa) vs Arabakoa (Gasteiz zentralizatzen da dena). Aurreko LAGak idazten hasi zirenean Gipuzkoakoa sustatzea pentsatu zen, baina gero gidalerroak Arabako eredua garatu zuten. Gainera, oinarritzko dokumentutik eratortzen den lurralde eredua hiriburuen zentralizazioa areagotzen duela ematen du. Gipuzkoako eredua sustatu beharko litzateke.
- 3.5.2. Lurralde banaketa: 4. nodo gisa garatu Debagoiena (inbertsio publikoak)
- 3.5.3. Objektu, arropa, material.... Berrerabilpena garatu eta erraztu/normalizatu.

4. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - 4.1.1..Debagoineako bidegorriaren ardatz nagusia lehenbailehen amaitu
 - 4.1.2.Hiri-bidegorrien proiektuak hobetu eta burutu. Bidegorriak errepideetatik ondo bereizi.
 - 4.2. Talde mugikortasun multimodala
 - 4.2.1.Debagoinenan trenbidearen geltokia
 - 4.2.2.Aztertu garraioa trenez
 - 4.2.3.Erabaki ausartak hartu garraio publikoaren alde
 - 4.2.4.Tranbiaren berreskurapen posiblea aztertu, bailara bere baitan eta gainerakoekin konektatzeko (mugikortasun nabarmen hobetuko litzateke)
 - 4.3. Bide-mugikortasuna
 - 4.3.1.Autoei trabak ipini herri barrutik ibiltzeko, garraio publikoaren erabilpena indartzeko. Hirigunera iristeko erraztasunak ematea beharrezkoa da beste bide batzuen bitartez, adibidez disuasio-aparkamendu jarri kanpoaldean eta autobus zerbitzuak jarri erdira iristeko.
 - 4.4. Energia
 - 4.4.1.Autokontsumoaren sustapena (burujabetza energetikoa)
 - 4.5. Ura
 - 4.5.1.Uraren kudeaketa egiterakoan ikuspuntu integrala garatu behar da: arroa zaindu behar da (landaretzaren kudeaketa...)
 - 4.5.2.Akuiferoak, fracking-ak zein eragin dauka?
5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea
 - 5.1. Osasuna
 - 5.1.1.Errauskailuaren gaia dela eta aztertu: osasunean duen eragina, industria edo trafikoarekin konparatu; Zabalgarbi erabiltzea (ez da nahikoa sortu nahi dugun zaborra (Debagoienako datuak kontutan izanda) kudeatzeko?); hondakindegiei alternatibak bilatu lur gehiago ez okupatzeko; diru publikoa gastatzen denez, bereziki baloratu. Sistema osoa diseinatu beharko litzateke, zaborra murriztearen ikuspegitik (Debagoiena)
 - 5.2. Klima aldaketa
 - 5.2.1.Ingurunearen kutsadura saihestu. Klima aldaketak ez digu arduratu behar, beti egon baita eta beti egongo baita.
 - 5.2.2.Lanera joateko kotxearen erabilera zigortu vs bizikletaren erabilera saritu.